






GELAKO GIROA

Helburuak

1. Gelan gertatzen diren **gatazkak argitzea** eta haien behaketa egitea.
2. Ikasleei aukera ematea eskolan dituzten **gatazkak eta gertatzen zaizkien gauza onak azaltzeko**.
3. Aztertzea **zer-nolako giroa** dagoen gelan elkarbizitzarako.
4. Ikasleei azaltzea badirela **beste modu batzuk sentimenduak adierazteko** (idatziz, ikonoak erabiliz...).
5. Ikasleekin estrategiak lantzea **ezetz esaten, sentimenduak azaltzen** eta **gatazkak modu egokian azaltzen** ikasteko eta **asertibitatea** garatzeko.
6. Gelako **talde sentimendua** sortzea: denon artean, errazago lortu dezakegu gelako eta eskolako elkarbizitza hobetzea.



NOLA SENTITZEN NAIZ? ZERGATIK?

ABENDUA	Nola?			Zergatik?
1. astea				
ASTELEHENA				
ASTEARTEA				
ASTEAZKENA				
OSTEGUNA				
OSTIRALA				



GELAKO GIROA NEURTZEN



ZENBAT POZIK



ZENBAT TRISTE



EMAITZA



PROZEDURA

- Egunero, arratsaldeko azken saioko 5 minutuetan, ume bakoitzak gurutze bat markatu behar du bere orrialdean, dagokion laukitxoan: POZIK / NORMAL / TRISTE. Eta 'pozik' edo 'triste' egon bada, esaldi batean azaldu behar du zergatik.
- Ostiralero, tutoretza saioan, ikasle bakoitzak idatzitako datuak komentatu, eta emaitzak idazten dira termometroetan:
 - a. Lehen termometroan, berdez, zenbat ikaslek markatu duten 'pozik' egon direla.
 - b. Bigarreanean, gorriz, zenbatek markatu duten 'triste' egon direla.
 - c. Hirugarreanean, urdinez, kenketa honen emaiza: [zenbat berde] – [zenbat gorri].
- Emaitza guztiak elkarbizitza txokoan komentatu, eta hobetzeko proposamenak lantzen ditugu.





JARRERA EGOKIAK ETA DESEGOKIAK BEREIZTEN

GELAKO ELKARBIZITZA	
JARRERA EGOKIAK	JARRERA DESEGOKIAK
<ul style="list-style-type: none">➤ Lagunekin materiala konpartitzea, baimena eskatu eta eman arte itxaronda.➤ Talde lana egitea, denok parte hartuta eta elkarri lagunduta.➤ Gatazka bat sortzen denean, heldu bati kontatzea eta laguntza eskatzea...	<ul style="list-style-type: none">➤ Lagun bati bere materiala kentzea.➤ Ilaran dagoenean, ikaskide bat bultzatzea edo ostikada bat ematea.➤ Gelakoei gauzak ezkutatzea.

(ADIBIDEOK KARTOI MEHE BATEAN IDATZIKO DITUGU, GELAKO TXOKO BATEAN)

